

Gure ikasleek eskupilotako finalera heldu ziren Zabalkiko Txapelketan

2015/03/09

Aurten Zabalkiko 20. edizioa ospatu da EHUK antolatuta.

Hasieran, Frantziako unibertsitateen artean antolatu zen txapelketa hau, baina laister, beste unibertsitate batzuk gonbidatu zituzten. Horrela, aurten, Frantziako unibertsitatez gain, MU, Nafarroa, Burgos, Cantabria eta Valentziako unibertsitateetako ikasleek ere parte hartu dute.

Txapelketa, liga eran antolatu zen, goizean denek-denen kontra jokatu zuten eta arratsaldean final-erdiak eta finalak.

Frontenisaren kasuan, Kepa Bosch eta Josu Furundarena, guretzat ezezaguna den pilota olinpikoarekin jokatzen hausartu ziren, eta nahiz eta partidu denak galdu, beraien jokoa hobetzen joan ziren, azkenengo partidua puntu bakarrarengatik galduz.

Eskupilotaren kasuan, Jon Imazek eta Jon Apaolazak, ligako lau partidutik hiru irabazi zituzten, baina azkenengo partidua eskua minduta bukatu zuten. Ondoren finala jokatuko zuten bikote berdinen aurka, baina gauzak horrela, finalean ezin izan zuten jokoa erritmo altuan mantendu eta ezinezkoa egin zitzaizen irabaztea.

Eskerririk asko lauoi eta antolatzaileei.

Txapelketako argazkiak gure [facebookeko orrialdean](#).

